



DIAGNOSTIKORAKO POLISOMNOGRAFIA.

ZER DA OHIKO POLISOMNOGRAFIA?

Loaren azterketa bat da: loaldian zure arnasketa ez ezik zure garunaren eta giharren jardura neurtzeko aukera ematen digu, zure loaren kalitatea eta kantitatea baloratzeko eta parametro horiek loaren nahasteekin zer harreman duten ikusteko. Proba konplexua da eta, ondorioz, ospitalean egin behar da.

Probaren helburua da loaren nahasteren bat ote daukazu baloratzea, zer larritasun duen zehaztea eta, egoki ikusten bada, tratamendua jartzea. Aurrez proba bat egin eta emaitzek diagnostiko argi bat adierazten ez dutenean –hots, proba hori erabakigarria izan ez denean– agintzen da polisomnografia batzuetan.

NOLA PRESTATU BEHAR DA PROBARAKO?

Normalean aurrez jarriko gara zurekin harremanetan, loaren azterketa zein egunetan egin finkatzeko.

Probaren egunean ohiko bizimodua egin. Etxean afaldu behar duzu, ospitalera joan aurretik. Gomendatzen da edari alkoholdunik edo bizigarrik ez hartzea (kafea, tea, kolazko freskagarriak, etab.); nolahi ere, egun horretan normalean egiten duzuna egitea komeni da (eguneroko bizimodua). Botikaren bat hartzen baduzu, ez duzu hartzez utzi behar, baina hartu baduzu, komeni da proba egingo dizun arduradunari jakinaraztea. Gomendagarria da etorri aurretik dutxa hartzea, ilea garbitzea eta, gizona izanez gero, bizarra egitea. Bizarra izanez gero, nahikoa izango da pixka bat moztea.

NON ETA NOLA EGINGO DIDATE PROBA?

Joan behar duzu LOAREN UNITATEra, Santiago egoitzako B pabiloiko 2.solairuan aurretik adierazita daukazu orduan. Egon behar duzu itxarongelan artatua izan arte. Pijama edo kamisoi eta norberaren garbiketarako zorro bat ekarri beharko duzu.

Loaren Laborategiko gela batean egingo duzu lo. Hainbat kable jarriko dizkizute buruan, toraxean, sabelaldean eta gorputz-adarretan. Probak dirauen artean Loaren Laborategiko arduradun bat izango da zu zaintzeko eta zer edo zer behar izanez gero hari jakinarazi diezaiokezu. Horren osagarri, eta zure segurtasunerako, telebista-kamera batzuek ziurtatuko digute zainduta zaudela uneoro.

Proba biharamunean, goizeko zazpiak aldean amaituko da. Kableak kendutakoan bainugela bat izango duzu garbitzeko. Proba amaitutakoan etxera edo lantokira joan ahal izango duzu. Agiriren bat behar izanez gero, proba amaitu ondoren ate nagusia dagoen harrera zerbitzuan eskatu behar duzu.

Probak ez du arriskurik, ez du minik sortzen eta deserosotasuna oso txikia da; etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egin beharrak sortzen duena besterik ez.

NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Loaren azterketa egitera zatozen gauean, kontsultarako hitzordua finkatzeko orri bat emango zaizu. Kontsulta horretan, mediku batek azalduko dizkizu probaren emaitzak eta tratamendua jarriko dizu behar izanez gero.

Probako emaitzen txostena kontsulta-egunean emango zaizu eta, horrenbestez, garrantzitsua da kontsulta horretara joatea.